

aurkibidea

Irakaskuntza Publikoa

Erretiroa ez ukitu!	2
Lan Akordio berrirako Negoziazioa	3
Lan Akordio berrirako Plataforma # Baliabideak eta LZ	4
# Lan Baldintzak	5
# Enpleguaren egonkortzea	6
# Ordezkoen egonkortzea	7
# Formazioa	8
#Lan Osasuna	9
# Genero berdintasunerako neurriak	10
Lan sarien igoera	11
Boletina	11
EAEko Administrazioako Mahai Orokorreko akordio berria	12
Erlijio guztiak eskolatik kanpora	13
Zerbitzu Publikoa hobetu: Gastu militarrik ez	14
2010 arrazoi martxan jartzeko	15

Hezkuntzako Laboralak

Negoziazioaren hasiera	1-2
Honakoak irakurri ditugu hortik	18

ERRETIROA EZ UKITU!!

Gure klaustro eta irakasle geletako solasaldietan lehendik ere gai-izarretako bat zen erretiroaren kontuak are eta oihartzun handiagoa bereganatu du alde guztietan. Ez da gutxiagorako! Orain 70 urte arte atzeratu nahi dute derrigorrezko erretiroa eta pensioen inguruko beste zenbait kontu ere ukitu nahi dute, tartean borondatezko erretiroa.

Baina zer uste dute enpresari eta dirudun esklabista hipokrita hauek! Ez al dute nahikoa zerga ez ordaintzearekin, doako kaleratzearekin, enpresak itxi eta lasai gelditzearekin? Zein izango da hurrengo eskaera? Langileak urkatzeko eskubidea? Lehen gaueko eskubidea? Ase ezinak dira eta oso harrotuta daude.

Eskerrak ezkerrekoak diren Madrilen eta Gasteizen dauden gobernuak! Zapaterok "BAKARRIK" 67 urte arte atzeratuko du! Beti langileen alde! Ederki ari dira kanbalatxea antolatzen: Toledoko paktoen mahaia omen da horretaz hitz egiteko tokia... Urrutitxo, agian! Zalantza eta susmo txar baino ez dator txiringito horietatik, oso erraza baita salerosketak burutzea inplikatuaren kontrolrik gabe. Orain gutxi gertatu izan balitz halako zerbait, dagoeneko greba orokorraren deialdia egina litzateke.

Euskal Herriko gehiengo sindikalak argi adierazi du neurri horien aurkako jarrera tinkoa. STEE-EILASEk bat egiten du horrekin, eta ondoko hauek adierazi nahi ditu:

- Ez dugu onartzen erretiro adina luzatzea.*
- 55 urterekin borondatezko erretiro aurreratua hartzeko aukera exijitzen dugu.*
- Hauek guztiak gure negoziatorako marko propioan egitea exijitzen dugu.*
- Behar den dirua biltzeko, fiskalitatea aldatzea exijitzen dugu eta, bereziki, iruzur fiskalari aurre egitea.*

Erne egon gaitezen beharrezkoak diren mobilizazioetan parte hartzeko!



LAN AKORDIO BERRIRAKO NEGOZIAZIOAK MARTXAN

Bi ikasturtez jasan behar izan dugun Lan Akordio atzerakoiaren amaierarekin etorri da, azkenean, lan akordio berri-rako negoziazio prozesuaren irekiera. Albiste ona da prozesua irekitzea benetan beharrezko-ak baititugu aldaketa sakonak, hobeto esanda, hobekuntza sakonak. Jarrera eta helburu horre-kin goaz hasi diren negoziazioetara, orain dela hiru urte langileen gehiengoak aldarrikatzen zituenak gaurkotasun erabatekoa dutelako eta, nagusiki, klaustroen eta langile guztien ardurak eta lan bolumena etengabe ugaritzen jarraitu dutelako. . Aurreko lan akordioak arazo nagusi-ak konpondu gabe utzi zituen. Ezin esan Administrazio berriaren jokaerak itxaropenerako arrazoirik eman duenik nagusi izan diren egitas-moetan (curriculum, eskola 2.0.ren antolake-ta...).

Ondoko orrialdeotan gure plataformaren ardatz nagusiak eta aldarrikapen esanguratsue-nak jaso ditugu, afiliatuen asanbladetan eta ikastetxeetatik jasotako ekarpen ezberdinekin osatuak. Baina horretara jo baino lehen derrigo-rrezkoa deritzogu aipamen orokorrak egitea prozesu osoaren inguruan.

Bi irizpide nagusitan oinarritu dugu gure pla-taformaren jorketa. Lehenik, Euskal Eskola Publikoa indartzea, hobetzea, eta hezkuntza sis-temaren ardatz bihurtzeko ahaleginak gidatzen du gure aldarrikapen nagusiak. Kalitatezko zer-bitzu publikoa bermatzeko ezinbestekoa da, beste faktore batzuen artean, baliabide egokiaz hornitzea. Are gehiago, krisi garaietan (banka-riek eta enpresariak sortutakoa, hain zuzen) premiazkoago bihurtzen da behar hori. Bestetik, azken urteetan etengabe joan dira ugaritzen klaustroen eta irakasleen betebeharrak, berdin kantitate zein kalitate aldetik. Proiektuak, lehentasun ildoak, berrikuntzak, kudeaketa... amaierarik gabeko erantzukizun iturriak izan dira, langileek bere gain hartu dituztenak, sarri-tan administrazioaren "aurkako" laguntzarekin, utzikeriarekin edota inposaketarekin. Honi guz-tiari aurre egitea derrigorrezkoa delako, hobe-kuntza nabarmenak aldarrikatzea ezinbestekoa da. Beraz, plataformari tinko heltzeko garaiak dira, eta prestatzen joan behar dugu, ez baitiru-di hobekuntzen bidea erraza izango denik.

Hasteko, administrazio bera muga gehiegi

jartzen ari dela dirudi, hitz politetatik haratago. Aurrekontuen legea eta funtzionario guztiei era-giten digun Mahai Orokorreko akordioa dira pro-zesua baldintzatuko dutenak. Baina horrez gain, lehendakariaren asmoekin bat eginez, "korres-pontsabilitate" irizpidea gauzatu nahi dute, "baliabideen kudeaketa arduratsua" ezarriz. Ikastetxeak eta irakasleok konpromisoari eten-gabe erantzuten diogu, gure aldeko parte-a betetzeari ez diogu inoiz uko egin. Ezin dugu gauza bera esan azken urte hauetan adminis-trazioak halako konpromisoari emandako erant-zunaz. Esan, esaten dute Hezkuntza dela lehen-tasunezko esparrua eta irakasleria dela esparru honetako oinarria. Kontua da adierazpen ponpo-soen atzetik zer datorren. Eta orain arte entzun-dakoak oso erraz laburbildu daitezke: murrizketak, dirurik eza eta goitik behera inposatutako "kudeaketa eredugarria". Hobekuntza batzuk egongo direla ez dugu zalantzan jartzen. Besterik ez genuen behar! Besteak beste, Mahai Orokorreko akordioak hobetu ditu zenbait atal, orain artekoa hobetzeko askorik ez baitzen behar. Hala ere, sektorearen mahaiaren esku-menak aldarrikatu nahi ditugu berriro, orain arteko akordio horiek abia-puntutzat hartuz.

Ez da irakasleena negoziatuko den hitzarmen bakarra. Heziketa Bereziko Lan Legepekoen mahaiak ere hasiera eman zion negoziazio pro-zesuari. Sei urteko epea jasan izan behar dute lan akordioa berriro ezinik, administrazio ezber-dinek sektore honekiko mespretxuz eta prepo-tentziaz jokatu baitute eta mahai gainean jarri dutena eskasa da benetan.

Ohikoa denez, mahai batean zein bestean, lan baldintzak hobetzea da helburu nagusia, langileen gehiengoaren interesen defentsan eta guztien parte hartzea sustatuz. Aurrekoetan ez dira errazak izan negoziazio prozesuak eta, gobernu berriaren orain arteko jokaera ikusita, ez dirudi oraingoan errazagoak izango direnik, gaur agintean daudenak eta orain dela hiru urte sinatu zutenak, berberak direlako. Espero deza-gun ez errepikatzea erabat okerrak izan diren dinamikak (sindikatuaren arteko gerrak, gehien-goaren aurkako erabakiak...) eta benetako pro-zesua gauzatzeko aukerak izatea. Asko dugu jokoan.

LAN AKORDIO BERRIRAKO PLATAFORMA

1. BALIABIDEAK ETA LANPOSTU ZERRENDAK

Azken urteetan etengabe joan dira ugaritzen klaustroen eta irakasleen ardurak eta lan bolumena, berdin kantitate zein kalitate aldetik. Proiektuak, lehentasun ildoak, berrikuntzak, kudeaketa... amaiera-rik gabeko erantzukizun iturriak izan dira, klaustroek eta irakasleek bere gain hartu dituztenak, sarritan administrazioaren "aurkako" laguntzarekin, utzikeriarekin edota inposaketarekin... Dazkagun plantillak ez dira nahikoak zeregin hauei guztiei aurre egiteko, eta irakasleen irakas-orduak ez dira murriztu azken urteetan.

Irakasleria ikastetxeko proiektuei atxikitzea da bide bakarra ikastetxeek beharrezkoa duten talde-lana burutzeko.

Ikastetxeei lanpostuak definitzeko eskumena aitortu behar zaie, ikastetxearen beharretan oinarrituta.

ESKATZEN DUGUNA:

Figura berrien ezarpen iraunkorra, Lanpostu Zerrendetan ordu-kredituak jasoz: IKT, Elkarbizitza, Hizkuntza Normalkuntza, proiektuen koordinaziorako lanpostuak ...

Irakastorduen murrizketa maila guztietan, azken urte hauetan metatutako lanei aurre egiteko. HH-LHn 22 irakastordu; BHn 16 irakastordu

Irakasleen funtzioei, koordinazio lanak barne, atxikitzen zaizkien **ordu kredituen definizioa**.

Tutoretza funtzioa funtzionamendu pedagogikoaren ardatza da. Bere konplexutasunak exijitzen duen dedikazioari aurre egin ahal izateko ordu kreditu berezien ezarpena.

Zuzendaritza taldeei eta ardura orokorreko lanpostuei dagozkien ordu kredituen ugaritzea, hauen antolaketa ikastetxeen esku utziz. Zuzendaritzako figura osagarriak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe handitan gauzatzea.

Irakasle/talde ratioen handitzea eta ikasle/gela **ratioen murrizketa**.

Haur Hezkuntzako gelek arreta zehatza eskatzen dute. Ratioak eta laguntzak era nabarmenean hobetu behar dira.

Eskola txikien, urrutiko eskolen, arlo sozio-ekonomikoan kaltetutako inguruetakoko **eskolen egoerak bereziki zaintzea**.

LAN AKORDIO BERRIRAKO PLATAFORMA

2. LAN BALDINTZAK

Mahai Sektorialaren eskumenak aldarrikatu nahi ditugu. Era berean, Mahai Orokorreko akordioan zehaztutakoak gutxieneko abiapuntutzat hartu behar dugu.

Erretiro aurreratuaren inguruan lortutako abantailak bermatu eta hobetu behar dira. Egungo legedia eta egoera administratiboari erreparatuz gero (MUFACE edo GIZARTE SEGURANTZA menpeko funtzionarioak, ordezkooak...), ezberdintasun nabariak ematen dira. Honen aurrean, administrazioak konpromisoa hartu behar du egoera hauek zuzentzeko.

Ordainsarien igoerak era linealean egitearen aldekoak gara, gure soldaten arteko ezberdintasunak areagotu ez daitezten. Ildo horri jarraituz, SEIURTEKOEN KAPITALIZAZIO SITEMARI eustearen aldekoak gara. Era berean, eroste ahalmenak urteetan jaso duen galera aitortu eta aurre egin behar zaiola nabarmendu nahi dugu.

Aurreko akordioan ezarritako tutore eta ziklo-koordinatzaile karguekiko diru pizgarrien sistema gainditu behar delakoan gaude, aurreko atalean aipatu bezala, funtzio jakinei ordu-kredituak atxikiz.

Zuzendaritza taldeko karguei dagokionez, denbora pizgarriak ezartzearen aldekoak gara, lan haue-tan aritutakoek aukera hau ere gutxienez izan dezaten. Kargu hauek utzi ondorengo "ordainsari bitali-zioekin" ez gatoz bat.

Baimenak eta lizentziak atalean hobekuntzak jaso behar dira, lege berri edota akordio ezberdinetan gauzatutakoak eta zaintza lan edota ardurekin lotutakoak, beti ere berdintasun irizpideak sustatuz..

ESKATZEN DUGUNA:

- # **Borondatezko erretiroa** 55 urterekin edo 30 urtez kotizatu ondoren.
- # Ordezkoentzat **errelebo kontratua** ezartzea.
- # LOEren xedapen iragankorra (2011 urte artekoa dena) data mugarik gabe luzatzea.
- # 2010 urterako, ordainsarien **%1eko igoera**. Ondorengo urteetan, KPIren pareko igoera, gutxienez. Aurreko urteetako **galeraren aitortza**.
- # Ez-ohiko soldaten %100 osatzea. Seiurtekoen kapitalizazioaren sistemari eustea.
- # ITZARRIko ekarpenak borondatezkoak izatea.
- # **Tutore eta ziklo-koordinatzaile** funtzioei atxikitako diru-pizgarriek sortutako diskriminazioa zuzentzeko partida berezia, ordainsariak berdintze aldera.
- # **Zuzendaritza taldeko kideek** karguan emandako lanaren truke **denbora** pizgarriak izateko aukera.
- # **20 asteko amatasun baimena eta 4 asteko aitatasun baimena** edo baliokidea. Guraso bakarreko familien kasuan, hauen metatzea.
- # Heriotza edo gaixotasun larriekiko baimenetan, odolkidetasuneko 1. mailako kasuan 5 laneguneko baimena, eta 2. mailako kasuan 3 lanegun. Seme-alaben edota senitarteko helduekin mediku bisitarako baimena.
- # **Urte sabatikoari buruzko hobekuntzak**: urte librea aukeratu ahal izatea eta borondatezko erretiroarekin lotzeko aukera izatea.

LAN AKORDIO BERRIRAKO PLATAFORMA

3. ENPLEGUA EGONKORTZEKO NEURRIAK. ORDEZKOEN LAN BALDINTZAK

Behin-behinekotasun maila handia dago irakaskuntza publikoaren irakasleen artean. Testuinguru honetan Mahai Orokorrean adostu diren oposizioak beharrezkoak dira, baina guk uste dugu beste bideak ere jarraitu behar direla langile interinoen lan-baldintzak hobetzeko eta bereziki egonkortasuna lortzeko.

Plantillak egonkortzeak ondorio onak ditu, ez bakarrik langilearentzat berarentzat, baita eskolarentzat ere. Izan ere, proiektu eta egitasmo berritzaileek langileen gutxieneko egonkortasuna behar dute hobekuntzak ezarriko badira. Geografia aldetiko bazterreko eskolen errealitatea bereziki aintzat hartu behar da, batzuetan plantillen egonkortasun faltak erabat baldintzatzen baitu bere errealitatea.

Irakasle ordezkoek lan-baldintza kaskarretan aritzen dira askotan, eta ahulenak izaten dira gure kideen artean. Beren egoeran hobekuntzak beharrezkoak direla uste dugu.

ESKATZEN DUGUNA:

Lanpostuen zerrendek (LZ-RPTak) ikastetxeetako errealitateari lotuago egon behar dute ardura eta proiektu berriei erantzuna egokia emateko. Beraz, ikastetxeen funtzio eta betebeharrak berriei dagokien **ordu kopuruak isla eduki beharko du Lanpostuen Zerrendetan**: IKT ardurara, lan-arriskuen prebentzioko ardura, normalkuntzako ardura, ikastetxearen proiektu finkoen orduak...

Neurriak hartu **Lanpostuen Zerrendak errealitatearen arabera eguneratzeko**. Beharrezkoa da Mahai Orokorreko akordioan LZetan finkatzeko aurreikusten den plazen kopurua (2.500) zabaltzea eta prozedura eta plaza horien ezaugarriak negoziatzea.

Ikastetxeei **lanpostuak definitzeko eskumena** aitortu behar zaie, ikastetxearen errealitateatik eta beharretatik abiatuta.

Irailaren 1ean plantilaren %100ak ikastetxean egon behar du.

Enpleguaren banaketan txertatutako **urte sabatikoaren** antolaketa aukera zabaltzea sabatiko bost urteren epearen barnean disfrutatzen. Borondatezko erretiroarekin lotzeko aukera izatea.

Mahai Orokorraren Akordioan aurreikusten diren irakasleentzako 3.600 plaza, gehi erretiroen ondorioz sortzen direnak, **gutxieneko kopurua** da.

Negoziaketa bideratzea oposizioen ezaugarri, baldintza, baremo, egutegi, banaketa eta abarren inguruan.

Plaza berri **guztiak HE-2koak** izan behar dute.

EPE deialdietan **bigarren espezialitatea** lortzeko aukera gauzatzea.

LAN AKORDIO BERRIRAKO PLATAFORMA

ORDEZKOEN EGONKORTASUNA ETA ORDEZKAPENAK

Baldintza jakin batzuk betetzen dituzten irakasle ordezkoei **lan-legepeko izaera** lortzeko aukera ezartzeko urratsak ematea.

Irakasle interinoen lanari **egonkortasuna** emateko bideak aztertuko dira, oraingo prozedurak hobetze aldera. Ordezkapenetan aritzen den irakasle kopuru bati lan egonkorra bermatzeko, ordezkapenatarako urteko bakanteak sortzeko aukera aztertuko da.

Irakasle guztien **ordezkapenak lehen egunetik** ordezkatzeko dira eta ordezkapena luzea izan denean, ordezkoa eta titularra ikastetxean elkarrekin koordinatzeko egun batez luzatuko da ordezkapena.

Ikasturte osoko ordezkapenetan izendapena **irailaren 1ean** egin behar da, irakasle ordezkoa ikastetxean lehen egunetik egon dadin. Era berean, ordezkapen hauek **abuztuaren 31an** izango dute amaiera data, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan.

Finkapenari **uko** egin ahal izango zaio lehen urtetik bertatik.

Lizentzia eta baimenen kontuan, irakasle ordezkoek gainontzekoen baldintzak izan beharko lituzkete, behintzat aplikagarriak badira ordezkapena burutzen den denboraren barnean.

Errelebo kontratua -"jubilación parcial"- langile guztiek dituzten baldintza berdinetan bermatuko zaizkie interinoei.

Ordezkapena egiten den denborak **oporrekin edota asteburuarekin** bat egiten denean, adibidez, aste osoko lana egin denean, jai-egun horiek diru-sarirako zein puntuetarako aintzat hartuko dira.

LAN AKORDIO BERRIRAKO PLATAFORMA

4. FORMAZIOA

Irakasleria ikastetxeko proiektuei atxikitzea da bide bakarra ikastetxeek beharrezkoa duten talde-lana burutzeko. Honek formaziorako bide egokiak zehaztea exijitzen du.

Era berean, ikastetxeek bere formazio proiektua definitu eta gauzatzeko autonomia eta laguntza izatea ezinbestekoak dira, ildo nagusien zehaztapen mailak definitzeko, hauekin lotutako formazio beharrak aurreikusteko eta formazio prozesuak modu eraginkorrean bideratzeko.

Berritzeguneen baliabideak eta egitasmoen eraginkortasuna, ikastetxeekiko lotura eta ematen dieten erantzuna hobetzea ezinbestekoa da.

Ez dira aukera hoberenak eskaintza uniformatzaileak, goitik beherakoak, ordezkapenik gabe burutzen direnak edota planteamendu "teknikoetan" nagusiki oinarritzen direnak.

GARATUk jarraitu behar du bere eskaintza zabala egiten eta habilitazio berriak eskuratzeko aukera jaso behar du. Ikastetxeen formazio-planen osagarri garrantzitsua izan behar du.

IRALEri dagokionez, egungo errealitateari egokitutako eskaintza birdefinitu behar da.

ESKATZEN DUGUNA:

Ikastetxe bakoitzak **autonomia** izan behar du barne **formaziorako** plana garatzeko behar diren ikastaroak antolatzeko eta behar dituen baliabideak eta laguntzaren ardura administrazioak bereganatuko du.

Ikastetxeetako beharren baitako formazioa edota ikastetxe osoari dagokiona **ordutegiaren barruan** egingo da eta Administrazioak hauen orduen ordezkapenak bermatu egin behar ditu.

Eskaintzen diren ikastaroen eta etengabeko formazio plangintza guztien **urteroko negoziazioa**, bai Garatu programaren barruan sartzen diren ikastaroetarako zein Lanbide Heziketako irakasleriari zuzenduta daudenentzako.

Eskaintako plazen kupo bat gorde behar da irakasle **ordezkoentzat**.

Hizkuntza-eskakizunak eskuratu gabe dauden irakasleei egiten zaien eskaintza kudeatuko du **IRALEk**.

Bere egitasmo nagusiak Hizkuntza-eskakizun egokia duten irakasleei begirako **formazioa bideratzea** izango da (R300, R400, R600...).

Aztertuko dira **eskaintza berriak** irekitzeko aukerak (aholkularitza lanak euskararen normalizazio prozesuetan, atal jakinetan...)

LAN AKORDIO BERRIRAKO PLATAFORMA

5. LAN OSASUNA

Aurreko hitzarmenetan jaso diren Segurtasun eta Osasun gaiak era oso mugatuan bete dira. Administrazioak darabilen diskurtsoa eta jartzen diren baliabideak ez datoz bat. Osorik eta behar den epeetan gauzatzen diren prozedurak (arriskuen ebaluazioak, mediku azterketak...) oso urriak dira.

Hartu beharreko zuzenketa neurriak, formazioa eta arlo honetako lanak burutzeko eskaintzen diren ordu kredituen disposizioa nabarmen hobetu behar dira.

Gure sektorean ematen diren bajen estatistikak adierazten dutena ez dute islarik arlo honetan benetan ematen diren urratsetan.

Guk ildo berean jarraituko dugu lanean, plataforman ezinbestekoak iruditzen zaizkigunak aldarrikatzen.

ESKATZEN DUGUNA:

Ikastetxetako eta **lanpostuen arrisku ebaluaketak** egitea baita **arrisku psikosozialen ebaluaketak** ere.

Azterketa medikuak urtean behin, egoera soziodlaborala eta generoko bereizketaren ikuspegia ere kontutan hartuta.

Ikastetxetako **segurtasun laguntzailearen ordu kreditua** igotzea, lana behar bezala aurrera eraman ahal izateko bi ordu oso eskasa baitira.

Ordu kreditua **prebentzio delegatuentzat** ebaluazioetan parte hartu ahal izateko.

Gaixotasunengatik **lanpostuen egokitzapenak**. Prozedura edo protokoloa ezartzea.

Osasun arazoak direla eta hainbat irakasleri emandako **zerbitzu eginkizunak** bi urte baino gehiago luzatu ahal izatea, arrazoiek bere hartan jarraitzen badute.

Lanbideak sortutako gaitzak (muskulu eskeletiko arazoak, ahotsarekin lotutako arazoak, nerbio-arazoak...) **gaixotasun profesional bezala katalogatu** eta zaintzea.

Sexu jazarpena, jazarpen laborala eta sexu arrazoiengatik jazarpenaren **prebentzioa** eta horren aurkako prozedura ezartzea.

LAN AKORDIO BERRIRAKO PLATAFORMA

6. GENERO BERDINTASUNERAKO NEURRIAK

Kezkaz ikusten ari gara egungo gizartean - eta zenbaitetan hezkuntza munduan ere - gai honen inguruan ematen den errealitate bikoitza: diskurtso politikoki zuzenak, batetik, eta erabaki, neurri eta jokaera eskasak eta epelegiak, bestetik. Jarrera eta erabaki eraginkor eta aktiboagoak behar direlakoan gaude.

Berritzeguneen eta zehar lerroen inguruan emandako zenbait aldaketa direla medio, atal hau asko ahuldu da. "Jaso beharreko" zerbaiten kontsiderazio du gehiago, benetako zehar lerro eta bultzatu beharreko ildoarena baino.

Egunero ikusten ditugun biolentzia sexistarekin lotutako gertaeren eta irudi eta estereotipoen erabileraren salagarrien aurrean ere jarrera aktiboagoak bultzatzearen aldekoak gara.

Ekimen eraginkorrak eta irakasleen formazioa sustatzeko planteamendu aktiboagoak eta baliabide zuzenak behar ditugu.

ESKATZEN DUGUNA:

Lege ezberdinek agintzen dutena eta aurreko zein beste arloetako akordiotan **jasotakoak betetzea**.

Jokaera baztertzaila, sexu-jazarpen eta sexu-biolentziazko jokaerei aurre egiteko **jarrera aktiboak sustatzeko ekimenak** aztertu eta abian jarri.

Ikastetxeei **Lan tresna eta orientazio** mailako laguntza zuzena eskaini.

Ikastetxeetako **formazio planetan** atal hau indartzeko neurriak bideratu.

Hezkidetza lantzeko eta sustatzeko **giza baliabideak** ugaritu eta modu eraginkorrean erabili.

LANSARIEN IGOERA

Beste urte batez eta ohitura onartezinari jarraituz, Hezkuntzako mahai sektorial zilegietatik at, Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean hain zuzen, negoziatu da gure lan sarien igoera, besteak beste. Oraingo honetan, CCOO, UGT eta ELA sindikatuek ipini dute sinadura. Berriz ere STEE-EILASen eskaera historikoa berresten dugu: irakasle eta hezitzailearen lansarien igoera dagokion Mahai Sektorialetan negoziatu behar da.

Ordainsarien inguruan zehaztu da **urteko igoera** %0'3koa izango dela. Aparteko ordainsarietako osagarrietan %0'5eko igoera ere izango da ohiko soldatarekin parekatzeko prozesuan.

Honekin batera, ordea, **atxikipen fiskalak** (PFEZ) puntu bat ala biko igoera izango du, soldaten arabera.

Azkenik, kontuan hartuta 2009ko **KPIa** %0,8 igo dela, soldaten igoerak KPIren benetako igoeraren azpitik kokatzen gaitu. Honi gehitzen badiogu Estatuko Gobernuak komunikabideetan iragarri duela ekainean BEZa %1a edo 2a igoko duela, argi dago gure eroste ahalmena oso kaltetuta suertatuko dela.

URTARRILEKO NOMINAN horrela islatuko da:

- Oinarrizko soldata, antzinasuna eta destino osagarria: +%0'3
- Berariazko osagarria: +%2'88 (tranpa, hemen sartu dutelako nominatik desagertu den "gehikuntza" kontzeptua).

APARTEKO ORDAINSARIA

2007an hasi zen aparteko sariak ohiko soldatarekin berdintzeko prozesua, urtero %1eko igoera aplikatuz. 2010ean egin beharreko igoera, ordea, erdian gelditu da. Mahai orokorrean 0,5ekoa zehaztu dute. Beraz, ez da aurten amaituko aurreikusita zegoen prozesua.

Ondorioak:

- Mahai Orokorrean sinatutako "igoera" **soldataren jaitsiera** izango da, berriro ere gure eroste ahalmenaren kalterako. Urtarrilean gutxiago kobratuko dugu azaroan baino.
- Otsailean zertxobait gehiago ikusiko dugu seiurtekoen kapitalizazioari dagokion kopurua ordainduko baitigute: 11€ ingurukoa izango da.

LANSARIEN IGOERAREN NEGOZIAZIOA MAHAI SEKTORIALETAN!

SOLDATAREN ERREBISIOA KLAUSULA!

BOLETINA

EHAA 233 zenb 2009/XII/3

EBAZPENA, Bigarren Hezkuntzako Institutuetako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako unibertsitateaz kanpoko sare publikoko irakaskuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizial eta Musika Kontserbatorioetako langileen plantilak Lanpostuen Zerrenda berriaren arabera egokitzeko prozesuaren behin betiko emaitza.

EBAZPENA,. lanpostuen zerrendako aldaketek ematen da zein maisu eta maistrari eragiten dioten zehazteko prozeduraren ondorioz lortutako behin betiko zerrenda.

EHAA 234 zenb 2009/XII/4

AGINDUA, Maisu-maistren leku-aldatze lehiaketa.

AGINDUA Bigarren Hezkuntzako lekualdatze lehiaketa.

AGINDUA Ikuskaritzako lekualdatze lehiaketa.

EHAA 245 zenb 2009/XII/22

EBAZPENA Ikuskarrien Kidegoan sartzeko praktika-aldia arautzen duena

EHAA 248 zenb 2009/XII/28

AGINDUA, zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa iragartzen duena.

EHAA 249 zenb 2009/XII/29

EBAZPENA, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak ematen dituzten irakasleei, irakasleria horren prestakuntza-ekitaldietan banako dirulaguntzak.

EBAZPENA, banakako ez-ohiko diru-laguntzak ematen zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleei, ingeleseko prestakuntza-jardueretan parte hartzearen.

EHAA 5 zenb 2010/I/11

AGINDUA,. Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoan sartzeko hautaketa-prozedura deitzen da.

EHAA 22 zenb 2010/I/22

EDIKTUA, 1015/08 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokiona, non epaia eman baita errekurritutako dekretua zuzenbidearekin bat ez datorrela deklaratu, eta deuseztatu egiten duena hirugarren oinarri juridikoan jasotako moduan, abenduaren 29ko 1513/06 Errege Dekretuan ezarritako gutxienezko irakaskuntzak

EAEko ADMINISTRAZIOKO MAHAI OROKORREKO AKORDIO BERRIA

Pasa den abenduaren 18an sinatu zen EAEko Administrazio osoko Mahai Orokorreko Akordio berria. Bere edukiak datozen bi urteetarako dira (2010 eta 2011) eta zuzenean aplikatuko dituzte administrazio gainerako sektoreko mahai guztietan (Hezkuntza, Osakidetza, Ertzantza, Justizia, Lakua...). STEE-EILAS, hainbatetan eskatu arren, ez dago mahai negoziatzaile horretan.

Orain, Irakaskuntza Publikako Akordioa negoziatzen hasi garen une honetan, ezinbestekoa da ezagutzea guregan eragina duten aldaketa horiek, abiapuntu berria jarri baitute negoziatzen hasteko.

Ordainsariak:

- 2010. urterako igoera orokorra **0,3**koa da.
- %0,5eko igoera aparteko pagetan dagoen berariazko osagarrian, hilabeteroko soldatarekin parekatzen jarraitzeko. 2010 eta 2011an aplikatuko da.

Lan eskaintza publikoak:

- Lanpostu Zerrendetan **2500 plaza konsolidatuko** dira hurrengo 3 urteetan
- **EPEetako deiladiak:** 3600 plaza 3 urtetan (1200 urtero), gehi beste 500na plaza urteroko jubilazioen ondorioz sortutakoak (1500)

Baimenak eta lizentziak:

- Aita-lizentziagatik 21 egun.
- Edoskitze-lizentziagatik seme-alabak 12 hilabete bete arte.
- Norberaren gauzetarako baimena: 4 hilabetera arte 2 urtetan.
- ONG batekin lan egiteko 2 urtera arte 5 urtetan gutxieneko aldia 3 hilabetekoa izango da.
- 1. mailako ahaideen gaixotasun larriagatik %50eko lanaldi murrizketa, ordainduta, hilabete batez.

EAEko mahai orokorreko akordioaren balorazioa

- Urteko igoera, izozketa saihesten badu ere, eskasa da eta KPI (0,8) baina txikiagoa. Beraz, erosmen ahalmena galtzen eta sortu ez dugun krisia ordaintzen jarraituko dugu.

- Plazen egonkortasuna eta EPEen deialdiak eginkizun administratibo arruntak dira, ez dute lanpostu berriak sortzen ezta plantila handitu ere, eta ez dute euro bat ere balio. Akordioa merkea da.

- Irakaskuntzako mahai sektorial guztien geroko negoziatioak baldintzatzen ditu datozen bi urteetarako.

Hezkuntzako mahai sektorialetan gai guztiak negoziatzea exijitzen dugu

- Badugu, bai, zertaz hitz egin eta zer negoziatu: aurretiko jubilazioen bermeak, ordutegi murrizketak, egonkortasunerako bide berriak, ordezkoen lan baldintza egokiak, ordu lektibo murrizketa, formazio egitasmo adostuak eta ordezkatuak, proiektuen eromenarekin amaitzea, ikastetxeen antolaketarako autonomia, baliabideen handitzea, inposaketarekin amaitzea, euskara eta euskarazko irakaskuntza babestea...

- **Hezkuntza Bereziko langileek** ere, sei urte pasa ondoren, badute zer negoziatu: udako kibraketa ordezkoez, urteko jarduna murriztea, eros-ahalmena berreskuratzea, Fisioterapeuta eta Lan Terapeuten soldaten homologazioa, asteko jarduna...

ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTZEA ETA LANGILEEN LAN BALDINTZAK HOBETZEA

TXANPON BEREKO BI ALDEAK DIRA!

STEE-EILAS



ERLIJIO GUZTIAK ESKOLATIK KANPORA

"Ikastetxe publikoetan emango den hezkuntza adeitsua izango da kristautasun etikoa-ren baloreekin." Irakaskuntza eta gai kulturaleri buruzko Estatu Espainiar eta Egoitza Santuaren arteko akordioaren I. artikulua, 1976ko uztailaren 28a.

"Haitiko gizagaixoak egun hauetan sufritzen ari diren baino zorigaitz handiagoak daude...Gugatik ere negar egin beharko genuke, gure egoera espiritual gaixoagatik..."
J.I Munilla, Donostiako apezpikua.

"Ume babesgabe bat erail, eta bere amak egitea, gizonezkoei limite gabeko lizentzia bat ematen die emakumeak erasotzeko,"
Granadako artzapezpikua.

Honek akaso, kristautasun etikoarekin adeitasunez jokatzeko du da baina giza eskubideen aurka doa zalantzarik gabe.

Gero eta argumentu gehiago ditugu eskola laiko bat tresna plural, giza eskubide eta askatasunen defendatzaile, inklusibo eta ez sexista bezala defenditu eta bultzatzeko. Beraz matrikulazio kanpaina berri honen aurrean:

1. Klaustro eta Eskola Kontseiluei erlijio iraksgaia Kurrikulumean egotearen inguruan eztabaidatzeko eskatzen diegu.

2. Ama, aita, tutore legal,...eta bereziki hausnartu eta ez matrikulatzean fededun direnak, edota erlijio iraksgaitik beraien seme alabak ateratzen dituztenak gonbidatuta daude.

3. Eliza katolikoak gozatzen dituen pribilegioak salatzen ditugu.

4. Hezkuntza departamentuari, erlijio klaseetara doazen ikasle eta irakasleen kopurua publiko egin dezaten eskatzen diogu. Hau behin eta berriz eskatu da, baina ez dugu ez ematearen arrazoirik ezagutzen. Erlijio klaseak ordutegi lektiboaren barruan sartzen diren heinean, derrigorrezko eskaintzakoa eta irakasleria guztion diru publikoaz ordaintzen duten bitartean, datu horiek publikoak izan behar direla uste dugu.

**ESKOLA LAIKO BATEN ALDE EZ ITZAZU
ZURE SEME ALABAK ERLIJIO KLASEETAN
MATRIKULATU**



ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETU: GASTU MILITARRIK EZ

Gure zerbitzu publikoen egoera prekarioaz kezkatu eta gastu militarrei zuzendutako diru partida itzelak ikusirik, urtarrilaren 20an, hau salatzen elkarretaratzea egin genuen Eusko Jaurlaritzaren aurrean ESK eta Kakitzat elkarteekin batera.

E.A.E.-n kalitatezko zerbitzu publikoak (hezkuntza, osasuna, menpekotasuna duten pertsonen arreta, gizarte laguntzak) garatzeko baliabideen falta nabaria da. Bi adibide:

= Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundeko (OCDE) 30 Estutuen artean hezkuntzako gastua Barne Produktu Gordinareneko % 5'9a izaten da batzatez, eta hemen %4ra soilik heltzen da.

= E.A.E.-n osasunerako gastu publikoa BPGaren % 5'2a da eta OCDEn % 6'5a.

Honek euskal biztanleriaren oinarrizko beharrak bete gabe uztea suposatzen du. Honela, osasun zerbitzuetan pertsonalaren kopurua defizitariotzat jo daiteke, eta gure ikastetxeetan dauden profesionalen lantaldea oso eskasa eta ez nahikoa da. Zer esanik ez profesionalen kontratazioan ematen den behin behinekotasunaz; edo ospitaletako larrialdien saturazioaz; edo ikastetxeetako jantokietan ematen den egoeraz; edo bizitza laborala eta familiarra uztartzeko ezintasuna administrazio publikotik 0-3 urte bitarteko umeen eskolartzea ez bermatzeagatik.

Eusko Jaurlaritzatik hezkuntza eta osasun arloei behar bezalako arreta ez diela ematen nabaria da. Agian beste lehentasunak dituelako, osasun eta irakaskuntza pribatuei dirulaguntzak ematea bezalakoak. Edozein modutan, defizit hauei aurre ez egiteko agertzen duten aitzakia beti aurrekontuen falta izaten da.

Ikas komunitate kide gisa, osasun zerbitzuetako langile moduan eta aitortzezinezko abentura militarrik prestatzeko errekurtsio ez xahutzeko beharrezko kontzientziaturiko pertsonen moduan, edo gauza biak batera, gure gizar-

tearen zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko bidea zein den agintari politikoei adierazi nahi diegu: ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETU: GASTU MILITARRIK EZ.

2010. urterako aurreikusitako aurrekontu militarrik Estatuak gastatzen duen diru guztiaren %10 eramaten du. Horregatik, zera azpimarratu nahi dugu:

" Estatuak gastu militarrik 2010. urterako 18.000 milioi eurokoa da.

" EAEk gastu militarrikentzako 1.500 milioi euro ipintzen ditu, hau da EAEko pertsona bakoitzak urtero 725 euro jartzen ditu gastu militarrikentzako.

" EAEk urtero 600 euroko balorea duen material militarrik saltzen du. Guztira 75 enpresa dira EAEn -Bizkaian 32, Gipuzkoan 24 eta Araban 19- 3.000 lanpostu sortzen dituztenak, armen diseinua eta fabrikazioan aritzen direlarik.

" Leopard tanke batek (10 milioi euro balio duena) ondo hornitutako bi eskola eraikitzeke beste balio du eta hiruk ospitale bat beste balio dute.


" Tomahawck misil bik (2'5 milioi euro) eskola bat beste balio du eta 14 misilek ospitale bat.

= Eurofighter kazabonbardero batek (25 milioi euro) 5 eskola eta 2 ospitale eraikitzeke beste balio du.

= Porta hegazkin batek (2.500 milioi euro) 500 eskola eta 50 ospitale.

Gure hezkuntza zentroetan lantzen ditugun Bake Hezkuntzako baloreetan sinesten dugun pertsonen gisa, aipatutako gastuak eta politika militarrik etikoki zalantzarik direlakoan gaude, gizarrikaren beharrikaren bat ere ez dutela betetzen eta baliabide-xahutzeta suposatzen dute, krisialdi ekonomikoa dela eta inoiz baino gehiago beharrezkoak direnean. Ospitale gehiago behar ditugu, langabezia, lan prekarioan edota bazterketa sozialen prozesuetan dauden familien oinarrizko beharrik asetzeko gizarte laguntza gehiago beharrezko da, eta jakina, irakaskuntza publikoan inbertsio handiagoa.

ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETU



GASTU MILITARRIK EZ



2010 ARRAZOI MARTXAN JARRAITZEKO

Emakumeon Mundu Martxa ekintza feministen nazioarteko mugimendua da.

Pobrezia eta emakumeen kontrako indarkeria sortzen dituzten arrazoia ezabatzeke ekimene-tan diharduten emakume talde eta erakundeak biltzen ditu mugimendu honek.

2000. urtean hasi zuen bere ibilbidea eta urte beteko ekimeneen ondoren, NBEK New York hirian duen bulegoetan martxaren aldarrikape-nak babesten zituzten 5 milioi sinadura ipini ziren mahai gainean. 2005ean Brasildik abiatu eta mundu osoa zeharkatu ondoren, Burkina Fason eman zitzaion amaiera, urriaren 17an, Pobreziaren Erauzketarako Nazioarteko Egunean hain zuzen ere.

5 urte beranduago, emakumeok, oraindik ere milaka arrazoi ditugu ekimen eta mugimenduetan jarduteko eta kalera ateratzeko, besteak beste: prekaritatea, pobrezia, indarkeria, iku-sezintasuna, diskriminazioa,.... Horrela, 2010. urte honetan emakumeok berriz ere elkartu eta martxan jarriko gara bidezkoa den eta bakean bizi den jendartea lortzeko. Ezinbestekoa dugu berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna oinarri dituen mundu bat izatea eta horretarako derrigorrezkoa da ondorengo **eskubideak** lortzea:

1. Emakumeak izateagatik gure kontrako biolentzia ez jasotzeko.
2. Jendarteko edozein arlo eta jardueretan aktiboki parte hartzeko eta aintzat hartuak izateko.
3. Lana baldintza duinetan burutzeko.
4. Zainduak izateko eta emakumea izateagatik etxeko eta zaintza lanak egitera behartuak ez izateko.
5. Famili unitatepean egon barik laguntza sozialak eta ekonomikoak jasotzeko.

6. Gure bizitzako etapa bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuz gure bidea/bizitza duintasunez egiteko.

7. Elikagaiak nola ekoizten ditugun erabakitzeko eta hauen ekoizpena duintasunez gauzatzeko eta elikagaiak izateko.

8. Gure identitate sexuala edozein izanda ere sexualitatea askatasunez bizitzeko.

9. Gure gorputzaren inguruan askatasunez erabakitzeko eta aukeratzeko.

Horrengatik guztiagatik, martxoaren 8an Iruñan hasiko den **Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxan** parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Martxa martxoaren 13an Iruñan bertan bukatuko da ekitaldi nagusi batekin. Gainontzeko egunetan beste herrialdeetatik zehar ibiliko gara.

Egitaraua eta ibilbidea diseinatzen ari gara, beraz behin betikoa dugunean jakinaraziko dizuegu.

Martxari buruzko informazio guztia ezagutu nahi izanez gero ondoko bloga kontsulta dezakezu:

<http://2010emakumeenmundumartxa.blogspot.com/>



hezkuntzako laboralak

NEGOZIAZIOAREN HAI SERA

Urtarrilaren 22an, AZKENIK, Lan Hitzarmenaren negoziazioa berrartu zen. LAB eta ELAekin bildu eta berriz ere Mahai Negoziatzaileen deialdia exijitu behar izan genuen Departamentuak erreakziona zezan.

Lehenengo bilera honetan Administrazioak bere proposamenak aurkeztu dizkigu. Lehen hausnarketa batean esan dezakegu eskainitakoa oso eskasa dela, ez baitu kontuan hartzen Lan Hitzarmena berri gabe sei urte daramatzan kolektibo batetaz hitz egiten ari garela eta gainera STEE-EILASentzat onartezinak diren zenbait proposamen egiten dituela; hala nola, erlijioko irakasleak sartzera eta Lan Hitzarmenaren iraupena 3 urtetakoa izatea.

STEE-EILASen ez dugu zentzuzkoa ikusten Lan Hitzarmenaren luzapena urte bete baino gehiagokoa izatea, lan baldintzak hobetzeko aukerak atzeratzen dituelako, are gutxiago hobekuntzarik izan gabe hainbeste denbora daraman sektore batean.

Bestalde, eta behin baino gehiagotan esan dugun bezala, STEE-EILASen ez dugu ikastetxeetan erlijioa sartzearen alde pausu bat ere emango. Era berean, kontratazio arau "bereziakin" funtzionatzen duen pertsonalgori ez diogu gure oniritzia emango, erlijio eta orientazio sexualaren askatasuna errespetatzen ez dituzten kontratazioak direlako. Izan ere, Hezkuntza Departamentuak momentuan dagokion artzapezpikutzaren eskuetan uzten du zein langile kontratatu eta ordaindu behar duen erabakitzea.

Horrez gain, Departamentuaren proposamenak ez ditu guretzat hain garrantzitsuak diren zenbait puntu aipatzen:

- Ordezkoentzat udaren kobratzea.

- Azken urteetan galdutako erosmen ahalmena berreskuratzea.
- Asteko jardun maximoa ezartzea.
- Hezitzaileen funtzioetatik garraioa ezabatzea.
- Itinerantzien inguruko araudi bat hitzarmenean sartzera.
- Azken bizpahiru urteetan mantendu diren plaza guztiak RPTan azaltzea.

Azken puntu honen inguruan, sektorean jada ezaguna egiten zaigun diskurtso batera itzultzen da Departamentua, alde batetik, hezkuntza premia bereziak zer diren zehazteko irizpideak bateratu behar direla, bestetik, zein kasutan izango lirartekeen beharrezkoak errekurtsio pertsonalak zehaztea, etab.

Azken 10 urtetan bueltaka ari diren diskurtso honekin -orain arte langile gehiago ez kontratazteko erabili dutena gainera- oinarrizko aldarrikapen bat hankaz gora jarri nahi dute. Errebindikazio honek, lekualdatze lehiaketari zentzua emateko aukera bakarra eskaintzen du eta kontratazioetan behin behinekotasuna murrizteko aukera zabaltzen du.

Bestetik, Administrazioaren proposamenean dena ez da ezkorra, gure plataformaren lau puntu jasotzen baititu:

- Urteko jardun maximoa 1460 ordotara jaistea.
- Fisioterapeuta, Lan Terapeuta eta Gizarte Langileen soldataren homologazioa Hezkuntzako gainerako diplomatuekiko.
- Zerbitzu eginkizunen antzeko prozesu bat sortzea ohikoak ez diren egoeretarako (gaixotasuna, egoera pertsonalak, etab.).

hezkuntzako laboralak

- Giza Fondoaren eta ikastetxeetan gertatutako kalte materialen konpentsazio sistema baten ezarketa (betaurrekoak haustea...).

Aipatutako puntuez gain beste asko daude eztabaidatzeko: lizentziak, funtzioak... denak dira garrantzitsuak, baina argi dago gai batzuk oinarritzikoagoak direla. STEE-EILASen azken hauek mahai gainean jarriz hasi nahi dugu, horregatik ordezkapen araudia dugu lehentasun, beti ere, lehenengo momentutik udaren kobratzeaz hitz egiten hasten bagara.

Bilerak hamabost egunero burutuko dira, hurrengo urtarrilaren 28an izango delarik.

Negoiazioen nondik norakoaz informatuta mantenduko zaituztegu.

IRALEko bigarren txanda

Dakizuen bitarteko langileen IRALerako libe-razioak urtarrilean hasi dira. Lan legepeko hezike-ta bereziko langileen kasuan guztira 12 pertsonek izan dute parte hartzeko aukera. Hauek dira datuak lurraldeka:

BIZKAIAN

		4000	5000	R
Eskaerak	12	1	1	10
Onartuak	6		2*	4

ARABAN

		4000	5000	R
Eskaerak	6	1	3	2
Onartuak	5	1	3	1

GIPUZKOAN

		4000	5000	R
Eskaerak				5
Onartuak	1			1

* 5000ko eskaera bakarra egon arren 2 eman dira, zeren 4000 eskatu zuen pertsonari froga egin eta gero 5000 egiteko gaitasuna zuela erabaki zuten.





HONAKOAK IRAKURRI DITUGU HORTIK:

"SI UN DOCTOR, UN ABOGADO O UN DENTISTA TUVIERA A TREINTA PERSONAS O MÁS EN SU OFICINA A LA VEZ, TODAS CON DIFERENTES NECESIDADES Y ALGUNAS QUE NO QUIEREN ESTAR ALLÍ Y EL DOCTOR, ABOGADO O DENTISTA, SIN AYUDA, TUVIERA QUE TRATARLOS A TODOS CON EXCELENCIA PROFESIONAL DURANTE DIEZ MESES, ENTONCES PODRÍAN TENER UNA IDEA DE LO QUE ES EL TRABAJO DEL DOCENTE EN EL AULA".

Kathy A. Megyeri. Chocolate Caliente para el Alma de los Maestros

ERRETIROA

ERRETIROAZ, bai. Zertaz idatziko dut, bada, horixe denean lagunartean, lanean eta supermerkatuan mintzagai nagusia? Orain badirudi 67 urtekoa ez dela erabaki finkoa, iradokizuna baizik, proposamen gutxi gorabeherako bat. Gutxi fio. Halaber, badirudi 67 urtekoa ez dela txarrena, ikusgarriena bai, baina azpitik kotizazio urteak dabilza estoldetan, erretiro-sariaren gutxitzea eta profanoek, jakina, ulertzen ez ditugun beste kontu oso garrantzitsu eta konplexu batzuk: estatistikak egiten dituen aurreikuspenak, erretiratuen kopurua 2050 urtean, Seguritate Sozialaren zenbakiak eta abar. Profanoek ez dugu ezer ulertzen, jakina, baina gure poltsikoek den-dena ulertzen dute.

Adituek esaten digute komenigarria dela zalantzarik gabe erretiratzeko unea gerorako uztea, apur bat, besterik ez, ekonomia dela, krisia dela, asko eta primeran bizi garela, 67 edo 70 urterekin eskarmentu handia dugula, senatari (hitzaren zentzurik hertsienean) izan ahal garela, gizarteari asko eman ahal diogula oraindik, erretiroa benetan kondena besterik ez dela, eta abar. Nik uste dut iruzur eskerga dela dena. Txarrena da guk sinetsi egiten diegula. Lagunartean, lanean eta supermerkatuan soldata miseraleak eta lan jarduera nekosoak dituzten asko eta asko iruzurra irensten hasi dira, hasi gara. Aditua eta adituaren diskurtsoa barne-barnean daramagunez fatalista bilakatu gara guztiok, eta errebeldeari demagogo deitzen zaio.

Sindikatuak? Ezkerra? Garai hauetan ezker-eskuin banaketa zahar horrek zirkulazioa arautzeko bakarrik balio duela ematen du, eta zirkulazio arauetan eskuinak du beti lehentasuna (ezkerraren nostalgikoak Ingalaterrara joan ahal dira bizitzera).

Esaten digute osasuntsu eta eder egongo garela 67 urterekin, gure bizitzaren gailurrean, neurona guztiak abiadura handian eta medikuntza ondoan gu laguntzeko badaezpada. Hala bedi. Nik ez dut ezer sinesten, baina senatari izendatzen banaute, eta toga bat (zuria, purpurazko apaingarriekin) eman Seguritate Sozialaren kontura, oda politikak idatziko nizkioke esklabotasun berriari.

RIKARDO ARREGI, Deia egunkarian, 2010-II-3



Berria, 2010-II-4